

ROBUSTIANA MUJIK A EGAÑA, "TENE"

(1888-1981)

Irailaren 16an hil zen Deban Tene Mujika, euskaltzain ohorezkoa. Robustiana Mujika Egaña, "Tene", Deban bertan munduratu zen 1888.eko maiatzaren 24.ean

Idazle bezala ospea hartzera heldu zen gerra aurreko garaian. Antzerkia, olerkia eta kontagintza zituen berak erabilitako gai nagusiak. *Euzkadi, Argia, Gure Herria, Jaungoiko-zale* eta beste zenbait aldizkaritan sakabanaturik aurkitzen dira beraren lanak. Baina, liburuak ere idatzi zituen eta zenbait literatur sari jaso ere bai. Hara hemen hauen berri:

Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak (Zornotza, 1923). Euzkaltzale Bazkuna zeritzan elkartean saritutako lana. Idazki aberkoiak dira eta hortik zetorkion garai hartako goresmena. Hemeretzgi gutunek eta hogeitahiru olerkik osatzen dute liburua. Gutunen bidez, emakume abertzaleen eginkizunak zer ziren adierazteñ zuen. Bertako XIV, XV eta XVI. idazkiak, emakumezkoei euskararen alde kontseiluzkoak dira. Olerkiak berriz, naturaren eta gure herriaren edertasunari eskainiak dira gehienak. Bertako "Udazken-ala" deritzanetik zazpi lerroko bertso bat jaso zuen Watson Kirkconnell-ek *European Elegies* (Ottawa, 1928) olerki bildumarako hautatu eta ingelesera itzulia bertan argitaratu zuen.

Gogo-oñazeak (Tolosa, 1934). Hiru ekitaldidun antzerkia, *Antzerti* aldizkariak antolatutako II. antzerki sariketan lehen saria eraman zuen lana. *Antzerti*-ren 34-35-36 zenbakietan argitaratua.

Gabon (Tolosa, 1935). Haurrentzako bakirrizketazko antzerkia. Hau ere, *Gogo-oñazeak* bezala, 1934an Tolosan ospatu zen II. antzerki sariketan saritua. Garai haietan, zein bata eta zein bestea errepresentatuak izan ziren.

Joan Joxe (1936). Hiru ataldun antzerkia, Oñatin egin zen "Asamblea Mariana Diocesana"ko literatur lehiaketan saritua. Handik lasterrera etorri zen Espainiako gerra eta Gasteizko apezpikutegian galdu zen lan hau. Egilea bera, herbesteratua izan zen eta urte asko kanpoan egin ondorean itzuli zen. Euskal lanetan aritzeko ez zuen aurkitu giro egokirik, baina hala ere zerbait egin zuen.

Esan beharra dago garai hartako beste zenbait idazlek bezala, lehendik euskarazko literaturarik ez bagenu bezala idazten zuela, lehengo euskarazko hitzen erabilkera ezagutu gabe, hitz asko lehendik diren ala ez begiratu gabe hitz berriak asmatuz, neologismoz beterik. Eta, Tene ez zen haien artean joera hori gehiengo erabiltzen zuenetakoa. Eskerrak horri, bere lanak irakurgaiago dira, nahiz eta ideia aldetik atzerkoiak izan.

Gerraostean zenbait artikulua eta ipuin idatzi zituen Debako jaien programetan. Oso gutti bestelako kultur aldizkarietan. Tenek, bere zahartzaroko ajeen artean bizialdiak ere izaten zituen eta hala adierazi zigun 1964.ean Ondarroan Txomin Agirrereren

mendeurrena ospatzeko eratu ziren literatur lehiaketetan, nekazari bizitzari buruzko gaien lehen saria irabaziaz.

Oraindik geroxeago, beste liburuxka bat ere idatzi zuen, *Cuadernos de vascuence hablado* (Zarautz, 1968) deritzana, euskararik gutti edo bat ere jakin ez eta beren haurrak ikastoletara bidaltzen zituzten gurasoei laguntzeko egina. Era hartako gehi-go argitaratzekotan zen, baina nik dakidanez hura besterik ez zen agertu.

1975. urtean, Emakumearen Nazioarteko Urtea ospatzean, Euskaltzaindiak bere ohorezko izendatu zituen Julene Azpeitia, Madeleine Jaureguiberry eta Tene Mujika, hirurak joan zen mendean sortuak, euskararen irakaskintzan eta idazle bezala hainbeste lan egindako emakume ohoragarriak zirelako. Lehenengo Madaleine eta gero Julene joan zitzaizkigun (beren bizitzaz ikus *Euskera*, XXIII, 1978, 397 orr. eta XXVI, 1981, 509 orr.).

Aurtengo apirilean, Deban Joan Jose Mogelen mendeurrena ospatuz eratu genuen dialektologia ikastaroaren bukaeran, Tenen gogozkoa zen han agertzea, baina ordurako itsutua eta ibili ezinik zegoen. Egutenik egunera beherako zetorren haren osasuna eta beraren sorterrian eman du azken arnasa. G. B.

J. S. M.